

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**296/2021 Foru Agindua, uztailaren 15ekoa. Onestea hutsen zuzenketa uztailaren 1eko 279/2021 Foru Aginduan, zeinaren bidez lehiaketa onetsi baitzen Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorren eremuan hutsik dauden lanpostuak betetzeko**

Hutsak aurkitu dira uztailaren 1eko 279/2021 Foru Aginduan, zeinaren bidez lehiaketa onetsi baitzen Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorren eremuan hutsik dauden lanpostuak betetzeko (ALHAOren 75. zenbakian argitaratuta, 2021eko uztailaren 7an). Hortaz, dagozkien zuzenketa egin behar dira.

Aipatutako foru aginduaren I. eranskinak, deialdia arautzen duten oinarriei buruzkoak, zazpigarren oinarriko B) "Berariazko merezimenduak" apartatua, e) letran, xedatzen du zerga arloko kudeaketa teknikari lanpostuak (zuzeneko zergak, zeharkako zergak, katastroa, Ikuskaritzako kudeaketa teknikaria eta Guardiako bulegoaren arduraduna) betetzeko prozeduran ez dutela berariazko probarik egin behariko gaur egun ezagutza arlo beraren barruko lanpostuen titular direnak.

Hala ere, deialdi horren barruan, aurretik aipatu diren lanpostuez gainera, badaude zerga arloko beste kudeaketa teknikari lanpostu batzuk, berariazko proba daukatenak. Horiek, era berean, berariazko probatik salbuetsi behar dira ezagutza arlo bereko lanpostuen titular direnentzat.

Beste alde batetik, Zergabilketako administrariaren lanpostua (kodea: 2041.006) ezabatu behar da dei egindako lanpostuen zerrendan (II. eranskina), behin betikoz esleitutako lanpostu bat sartu baita, akats batengatik, eta Herrilaretako goi-mailako teknikariaren lanpostuari (kodea: 1191.002) emandako hizkuntza eskakizunaren derrigortasun data mugaeguneratua agertu behar da, bat etorritik Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko indarreko lanpostu zerrendan ezarritakoarekin.

Azkenik, berariazko merezimenduen urratsa daukaten lanpostuen zerrendan (III. eranskina) sartu behar dira Ekonomia eta zerga teknikaria (kodea: 1125.001) eta Agiritegiko liburutegiko laguntzailea (1552.002 kodea) lanpostuak, bat etorritik deialdiko zazpigarren oinarrian xedatutakoarekin, zientean ezartzen baitira berariazko proba egin behar den lanpostuak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 109.2 artikuluan, honela dio: "Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak."

Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontua Gauzatzeari buruzko Arauan ezarritakoarekin bat etorritik Kontuhartzaila eta Kontrol Zerbitzuak emandako 682/2021 ekonomia eta araudi txostena ikusirik.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren alorreko eskumenak ezarri ziren. Bestalde, ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren alorrean eskumena duen sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zen. Bi dekretu horietan ezarritakoarekin bat etorritik,

## XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Uztailaren 1eko 279/2021 Foru Aginduaren I. eranskinean, zazpigarren oinarrian (“Lehiaketa aurrera eramatea”), B) apartatuan (“Berariazko merezimenduak”), e) letran aurkitutako hutsa zuzentzea, era honetan:

Hau dioen lekuan:

“e) Zerga arloko kudeaketa teknikari lanpostuetara (zuzeneko zergak, zeharkako zergak, kastroa, Ikuskaritzako kudeaketa teknikaria eta Guardiako bulegoaren arduraduna) lehiatzen denean, ez dute probarik egin beharko gaur egun ezagutza arlo bereko lanpostuen titular direnek.”

Hau esan behar du:

“e) Zerga arloko kudeaketa teknikari lanpostuetara lehiatzen denean, ez dute probarik egin beharko gaur egun ezagutza arlo bereko lanpostuen titular direnek.”

Bigarrena. Honako lanpostu hau ezabatzea uztailaren 1eko 279/2021 Foru Aginduaren II. eranskinean (dei egindako lanpostuen zerrenda):

20.1.04 Zerga Sarrerak Kudeatzeko Zerbitzua.

Zergabilketako administraria, kodea: 2041.006.

Hirugarrena. Uztailaren 1eko 279/2021 Foru Aginduaren II. eranskinean (dei egindako lanpostuen zerrenda) aurkitutako hutsa zuzentzea, era honetan:

50.1.02 Errepide Zerbitzua.

Herrilantetako goi-mailako teknikaria, kodea: 1191.002.

“Hizkuntza eskakizuna” zutabea, “3” dioen lekuan, “3, 01/01/2021” esan behar du.

Laugarrena. Honako lanpostu hauek sartzeari uztailaren 1eko 279/2021 Foru Aginduaren III. eranskinean (berariazko merezimenduen fasea duten lanpostuen zerrenda):

20.0.02 Arabako Lege eta Administrazio Erakundeko Zerbitzua.

1125.001 Ekonomia eta zerga teknikaria.

70.1.01 Agiritegi Zerbitzua.

1552.002 Agiritegiko liburutegiko laguntzailea.

Bosgarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpen hori eman duen erakunde berean; hori guztia, 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena), betiere 39/2015 Legearen 123. artikuluekin loturik (39/2015 Legea, urriaren 1koa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenarena).

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 15a

*Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*  
**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**